

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urriaren 11 / 601. zenbakia



**ARRASATEKO DEBAGOIENA
ZIKLOTURISTA TALDEAK
25 URTE EGIN DITU**

ORAIN ETA HEMEN: PARROKO BERRIA/7 • KIROLA: MONDRA ERREGIONAL MAILAKO LIDERRA/12

ARGAZKIA: XABIER URZELAI

ORAINGO ASTEAN: OSASUN GIDA/24

GIDA 2003 abian!

Aurten, telefono
partikularrak aurkitu ahal
izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu
edo aldatu baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

Gida Komertziala,
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

KALEINKESTA/ Etxien preziuek goruntz doiezela-eta, ze?



SANTIAGO MARTÍNEZ
Jubilaue



ENDIKA TORRES
Ikaslie



JESUS GARRIDO
Langillie



MARI CARMEN ÁGREDA
Langillie



IZASKUN ARANBURU
Langillie



BEA AYALA
Langillie

Uste dot jentie gertu dague-
la erosi biherrien errentan
hartzeko. Politte izengo
litzake. Dana dala, errentie
ordaindu biher dauenak
oin baino prezio merki-
gurek dattu.

Errentie bultzatu biherko
leukie, eta babes ofizialeko
etxiek be bai; neure ustez,
gutxi daguz. Gaur egun ara-
zo haundixe da etxiena. Eta
etorkizune oso baltza ikus-
ten dot.

Ondo pentsauko litxakit
errentak merketzen badi-
ttue eta babes ofizialeko etxe
gehixago egitten badittue.
Dana dala, konponbide
gatxa da, interes ekonomi-
ko larregi daguz.

Babes ofizialeko etxiek bul-
tzatu biherko leukie; lagun-
tzaren bat emun edo horren
garestixek ez ipiñi. Nik
badauket, baiñe gaztiekin
ikusten da ze gatxa dan. Etor-
kizune baltza dago.

Babes ofizialeko etxe gehi-
xago eta merkiaguet biher
die, baiñe azken hori gatxa-
gue da. Errenta sozialaren
gaiñien, barriz, neu ez naz
errenten aldekie, baiñe bes-
te bide bat da.

Errentek dirulaguntzaren
bat euki biherko leukie,
hain garestixek izenda, jen-
tiek gurago dau etxie eros-
tie. Babes ofizialeko etxe
gehixago be egin biherko
leukie.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK NORANZKOA ERRESPETATU Eskola Politekniko ingu-
ruko zenbait bizilagunek kexa bat helarazi digute. Egiten ari diren
lanan ondorioz, Eskola Politeknikoko sarreratik Udala plazarantz
joateko Eskola eta Alecoop artetik joan beharra dago. Auto gidari
batzuek buelta hori eman beharrean Foruen plazara joateko kontrako
nornanzkoa hartzen dute, eta horrek kexak sortu ditu.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

KULTURA / 15

ZAHARRAK / 18

Etxebizitza politika berria

Arrasateko
udalbatzarrak
herrirako etxebi-
zita politika
onartu du osoko
bilkuran.

'Printze txikia' ikuskizuna

Zapatuan,
17:00etan, Taupa-
da taldeak 'Print-
ze txikia' txo-
txongilo ikuskizu-
na eskainiko du.

Uribarriko Aste Kulturala

Uribarriko
zaharren elkarte-
ak aste kulturala
antolatu du
datozen eguneta-
rako.

ASTEKO DATUA

189.635

BIDAIRIK ERABILI DUTE URBANOA URTEBETEAN

189.635 bidaiarik erabili dute
herri autobusa 2001eko irailetik
2002ko irailera. Leintz Garraio-
ak enpresak emandako datuen
arabera, abendua izan zen bidai-
ari gehien ibili den hilabetea.

IRAKURLEAREN TXOKOA

“

Palestinarrak prest
daude hirugarren
Intifada hasteko. Ez
dute euren lurra utzi

gura (...) Egoera oso larria da.
Nazioarteak ez du ezer egin gura,
horren atzetik AEBak daudelako eta
AEBei Israel finantzatzea interesa-
tzen zaielako; hori da bere atea
ekialdean sartzeko (...) Israel egurra
ematen ari da palestinarrak
desesperatuta bere lurra uzteko;
gera psikologikoa da (...) AEBek
Israelgo gobernuari erroldatuta
dagoen israeldar bakoitzagatik
urtero 100.000\$ ematen dio (...) Frantzia
Israel finantzatzen duten
produktuak boikoteatzeko kanpaina
hasi da eta Europan zabaldu gura
dugu. Honako produktu eta markak
boikoteatzen ari gara: Coca-Cola,
Danone, Nescafe, Elena Rubinstein,
Vichi, Loreal, Pryca, Carrefour...”
AMAIA ARRIZABALAGA
Arrasate Irratia/02-10-02

HERRITARREN BERBAK/ Txipi Ormaetxea



Errotazondo (?)

Gure Herria une gogo-
rrak pasatzen ari da,
eta gogo horietatik
ezin aldendu. Baina
komunikabideetan bada
material ugari; zaborra ere bai
franko. Ni, uda aurrean agindu
bezala, hurreko kontuez ariko
naiz, neure auzoko kontuez.

Badira urte
batzuk Arrasateko
leku-izenak batzen
ibili nintzela, bai
paper zahar artean
eta bai baserrita-
rrengandik ahoz
erabiltzen direnak
jasotzen. Inork
baino hobeto dakit
lan horretan bazire-
la okerrak eta
hutsuneak. Baina izen inpor-
tanteak sartu ez dituzula
ohartzean, pena hartzen duzu.
Esate baterako, auzotik Ara-
maixora alde egin zigun Joxe
Konok esandakoak dira hauek,
liburuan agertu ez zirenak:
Estradaestu, Kanteratxiki,
Sorginzulo, Arrizabal, Aixpuru,
eta abar. Barkaezina, benetan.
Eta zelako amorrua!

Auzoko beste aldean
(*eguzkibegixen*) ere ez nituen
denak jaso. Koadrilako lagun

Iñaki Etxebarri jardun eta
jardun aritu izan zait askotan,
eta beti egotzi dit *Errotazondo*
(ahoz *Errotasondo*) leku-izena
jaso ez izana. Izenaren forma
dela eta, zalantzak ditut: errota
eta ondo bitarteko kontsonante
hori zeozergatik dago hor, eta
baliteke jatorrian errota +

zahar + ondo izatea,
baina ez nago guztiz
seguru.

Forma alde
batera itxita, izen
horrek errota baten
berri ematen digu,
adinekoek *Errotazar*
izenarekin gogora-
tzen dutena. Aurre-
ko mendearen
hasieran-edo utzi ei

zian lan egiteari. Baina orduan
hau ez zen errota bakarra
auzoan. Ainubean bazen beste
bat, *Mispillondo* izena zuena eta
Elexgarai baserrita baino gorago
zegoena. Eta alde horretakoek
esaten ei zuten: “Mispillondo
dauen lekuen kendu daille
Errotasondo” (erdaraz errima
eta guzti: “Donde está Mispil-
londo que se quite Errotason-
do”). Baina ez dakit ba *Mispil-
londo* hori ere bete-betekoia ote
zen: uriol batek eroan zuen.

“Izen horrek errota
baten berri ematen
digu, adinekoek
'Errotazar'
izenarekin
gogoratzen dutena”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
Corcuera, M.Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 12**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- DOMEKA, 13**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 14**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- MARTITZENA, 15**
Ruiz, Maala 31 943 77 14 09
- EGUAZTENA, 16**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUENA, 17**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea . . . 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa

- Arrasate**
Astelenehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINITZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 - San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

TXERTATZE KANPAINA
Joan den astetik urriaren 31ra arte, ambulatorioan eta herriko zenbait auzotan gripearen aurkako txertoa jarriko dute.

1949AN JAIOTAKOAK
Urriaren 19an, 1949an jaiotakoek bilkura egingo dute. 13:00etan, San Frantzisko elizan meza entzungo dute. Gero, Musakola hostalera bazkaltzera joango dira. Zabaleta edo Lore lurrindegietan izena eman, 30 euro ordainduta.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Urriaren 17an, eguenean, *La ciudad está tranquila* filma emango dute, Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

MARSEL MAGOA
Gaur, egubakoitza, Marsel magoaren ikuskizuna, Fronton tabernan, 23:00etan.

TXOTXONGILO IKUSKIZUNA
Bihar, zapatua, Taupada taldeak *Printze txikia* umeendako txotxongilo ikuskizuna eskainiko du, Amaia Udal Antzokian.

KOMIKIAK BERBAGAI
Urriaren 17a, eguena, 19:00etan, Monterronen, Asisko Urmeneta komikilariak komikiei buruzko berbaldia emango du.

AEDren AGENDA

'HIRU HAUNDIXEK'
AEDk azaroaren 1ean, 2an eta 3an, *Hiru haundixek hiru egunetan* mendi irteera antolatu du. Interesatuok jo AEDra, urriaren 23a baino lehen, izena ematera.

ZAHARBERRIRAKO ERAGILEA
Zaharberrian lan egiteko eragilea behar dute. Bidali curriculuma, lehenik eta behin, AEDra.


URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Altamirako lokalak banatzeko arazoak

Udalak Altamiran zituen lokalekin arazoak izan ziren. Lokal haiek Pilota Elkarteari utzi zizkieten, baina elkarteak beste bat topatu zuen. Udalak Komite Internazionalistei, Eguzkiri eta Askapenari uzteko akordioa egin zuen, baina ordurako pilotakoek eskabaloikoei utzi zizkieten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Loka"



Kili-koloa, kili-kolo egotea.
- *Mai ankiak lokia dauka.*
- *Agiñ bat loka-loka daukat.*
- *Baldosa mordua loka dago.*

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jon Molina abadearekin berbetan

Astelehenean, Jon Molinari egingo diogu ongietorria. Abade aretxabaletarra hasi da San Andresko parrokia zuzentzen, eta hasierako inpresioaz galdetuko diogu. 09:30ak inguruan izango da elkarrizketa entzuteko aukera. Martitzenean, berriz, Arrasateko, ibarreko eta Gipuzkoako emakumeak zelan janzten diren kontatuko digu Sergio Hernandok. Haren esanetan, desberdintasun nabarmenak daude herrien artean; 10:00etan entzun ahal izango duzue.



Miguel Bolinagaren testigantza bizi-bizia

Astean albiste izan da Bedoña, hantxe aurkitu dituzte eta 1936an hildako miliziano biren gorpuzkinak. Miliziano bi haiekin aurrez aurre egon zen laguna elkarrizketatu du. Miguel Bolinaga da hura, gaur egun 81 urte ditu eta oso ondo gogoratzen du egun hartan gertatutakoa. Zapatuan eta domekan izango da Miguel Bolinagari egindako elkarrizketa entzuteko aukera, 11:00etan. Bestalde, Genaro Lekuona parrokoa ere gurean izan da.

HAUGIROA!

MINIMOA Astelhehena, 7	6 °C
MAXIMOA Astelhehena, 7	25 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	16,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	21 °C	13 °C	- l/m²
Eguena, 3	21 °C	12 °C	0,1 l/m²
Egubakoitza, 4	23 °C	15 °C	- l/m²
Zapatua, 5	21 °C	14 °C	- l/m²
Domeka, 6	24 °C	10 °C	- l/m²
Astelhehena, 7	25 °C	6 °C	- l/m²
Martitzena, 8	21 °C	8 °C	16,8 l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia: Maria Agirre eta Nerea Zubietek gidatuta.
09:20 Eguneko agenda.
09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabalak gidatutako magazina.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak... Maria Agirrek gidatutako tartea.
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea: orain dela gutxi kaleratutako abestiak entzuteko aukera.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
- ZAPATUA**
11:00 Asteko elkarrizketak: Genaro Lekuona, Sergio Hernando, Miguel Bolinaga eta beste hainbat gonbidatuekin egin ditugun elkarrizketak entzuteko aukera.
- DOMEKA**
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Gizartegintza saria jokoan

Aita Menni ospitaleak Gipuzkoako Diputazioak ematen duen Gizartegintza saria eskuratzeko ahalegina egin zuen joan den astean, eguenean. Sari hori, zehazki, Aita Menniko eguneko zentroak eskuratu nahi du.

Gipuzkoako hosto erakunde izan ziren lehian, tartean, Aita Menniko eguneko zentroa izan zen. Eguenean, goizeko hamaiketatik aurrera, Pedro Fernández de Larrinoa psikologo klinikoak Aita Menniko eguneko zentroaren aurkezpena egin zuen, hainbat arduradun eta agintariren aurrean. Aita Menniren eguneko zentroa Uribe auzoan dago, eta pertsona nagusiei dago zuzenduta; buruko lesioak, esaterako, alzheimerra dutenei zuzenduta.

Ikastaroa abian

Debagoieneko dendariendako Laguntza Teknikorako Kabineteak jakiak esku artean ibiltzeko agiria ateratzeko ikastaroa jarri du abian. Dendariendako derrigorrezkoa da agiri hori izatea, eta agiria ez daukana zigortua izan daiteke. Ikastaro hori doan da, eta orain dendariak biltzea baino ez da falta, ikastaroa egiteko 15 lagun behar dira-eta, gutxienez. Kabineteak beste ohar bat ere egin nahi du: balantzak bi urtean behin egiaztatuz egin behar dira.

Harrobietan emaitza onak

Udalerriko zenbait jarduerarako ingurumena zaintzeko planen barruan, Kobate eta Kanpanzar harrobiek hileroko txostena aurkeztu diote Gobernu batzordeari. Bi txosten horien arabera, emaitzak legeak ezarritako mugen azpitik daude; hortaz, emaitza egokiak dira.

Hala ere, bi harrobiek oraindik ere hauts dezente sortzen dute, eta hauts kantitate hori txikitzea izango da harrobien hurrengo helburuetako bat.



Jose Mari Astigarragari agurra

Mondragoetar asko joan ziren domekan Azkoitira Jose Mari Astigarraga, orain arte izandako parrokoa, agurtzera. Autobusa goizeko hamarretan irten zen, eta eguraldi ona lagun, sekulako giroa izan zen Azkoitian. Jose Maria Astigarragak hemezortzi urte egin ditu Arrasaten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Desagertutakoen oroimenez

Joan den astean, albiste batek Arrasate berbagai izan zuen berriro. Kurtzetxiki inguruan Gerra Zibilean hildako bi milizianoen gorpuzkinak aurkitu eta Aranzadi Zientzia Elkar-teak eta Arrasateko Udalak ezagutzera eman dituzte. Hedabide asko hurbildu ziren Arrasatera, eta oihartzun handia izan zuen.

Egia esanda, aspaldian

Gerra Zibileko hilobi asko aurkitzen ari dira, gero eta gehiago. Itxura denez, orain dela urte batzuk, gerra denboran ahaide bat galdu zuen gizon bat Espainiako Estatuan, herriz herri, halako hilobiengatik galde-ka hasi zen. Jendea beldur zen eta ezer gutxi kontatu zioten gizonari. Geroago, ordea, gerra sasoiaren euren ahaideak galdu zituzten

lagun gehiagok gizon haren-gana jo zuten eta, erakunde-en konpromiso eza ikusita, elkarre bat sortzea erabaki zuten. Elkarre bat Despage da, gerran desagertutakoen oroimenaren aldekoa. Webgune bat ere badute eta lan handia egiten ari dira, premiazkoa zena.

Horrez gain, hilobi batzuk aurkitu izanak jendea berba egitera animatu du eta badirudi uneoro halako hilobi berriak agertuz joango direla. Bazen ordua!!

ASTEKOIRUDIA



OIHAN VEGA

GERRA ZIBILEAN HILDAKO MILIZIANO BIREN GORPUZKINAK AURKITU ZITUZTEN KURTZETXIKIN

Joan den domekan, Aranzadi Zientzia Elkar-teak eta Arrasateko Udalak ezagutzera eman zituzten Kurtzetxiki inguruan aurkitutako gorpuzkinak. 1936. urtean, frankistek Bedoñako inguruetan miliziano bi metrailatu egin zituzten eta auzotarrak gorpuzkinak lurperatzera behartu zituzten. Orduko

lekuko batek gertatutakoa ezagutzera eman du eta hortik abiatuta gorpuzkinak aurkitu dituzte. Beste hainbat herritan bezalaxe, Arrasaten ere halakorik aurkitu dute. Gogoratu beharra dago gerra sasoiaren berrogeita bi arrasatear fusilatu zituztela, eta baliteke beste batzuk desagertuta egotea.

EGUZKI GRAF
inprimategia

Industrialdea 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABALETAKO

arbolapeta

arrasate

★
beinke

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

KIROLA/ Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldea

Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak 25 urte egin ditu

XABIER URZELAI

Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak 25 urte egin ditu irailean. Urrezko ezteiak ospatzeko asmoz, zikloturista martxa egin zuten eta, bide batez, Jose Maria Saizen IV. Memoriala ere izan zen. 25 urtean kilometro asko egin ditu Arrasateko zikloturista taldeak.

Hogeita bost urte ez dira egunero egiten, eta Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeari aurtentokatu zaio zenbaki esanguratsu hori betetzea. Arrasateko zikloturista taldea 1976an sortu zen, Club Deportivo Makatzena izenarekin. Lehenengo presidentea Luis López Díez izan zen, eta idazkari lanak Julio Cabezas Pérezek egin zituen.

Bi urte pasatu eta gero, 1978an, taldeari izena aldatu zioten; Club Cicloturista del Alto Deba izatera pasatu zen, eta Belisario Manteca izan zen presidentea. Urte hartan, Arrasateko Udalak tren geltoki zaharreko eraikina utzi zien. Julian Gallo egungo presidentearen esanetan, leku ezin aproposagoa zen hura: "Zeramika elkartekoekin batera geunden tren geltoki zaharrean, eta oso leku aproposa zen. Gimnasioa geneukan eta gura beste leku. Garai hartan, zikloturista taldean 100 bazkide baino gehiago izatera iritsi ginen. Inguruko herriek ez zeukaten zikloturista talderik, eta Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Aramaioko zikloturistak Arrasateko taldean zeuden. Egun, 45 bazkide gara, inguruetakoko herriek dagoeneko badituzte eta zikloturista talde propioak".

IZENA EUSKARATU

1987an, Deba Garaia izenarekin izendatu zuten taldea, eta Iñaki Iturriaga izan zen presidentea. Idazkari lanetan, berriz, Javier Castillo ibili zen. Hurrengo zazpi urteetan izen hori izan zuen Arrasateko zikloturista taldeak, eta urte haietan ez zen aldaketa nabarmenik izan. 1994an, lokalez aldatzeko ordua iritsi zitzaizen mondragoetarrei. Tren geltoki zaharrean INEMeko egoitza jarri behar zuten, eta zikloturistak leku bila hasi ziren. Topatu ere berehala topatu zuten, Ignacio Zuloaga kalean.

Orduetik hona ez dira lekuz aldatu, izan ere, ezin hobeto daude Ignacio Zuloagako lokalean. Tren geltoki zaharreko lokala askoz handiagoa zen, baina orain dauden lokalean ez da ezer falta; gimnasio txiki bat, gizon eta emakumeendako dutxak (orain ez dago emakumezkoenik, baina egon izan da), batzarrak egiteko gela handi bat eta kontuak eramateko beste gela txiki bat. Hala ere,



Tren geltoki zaharrean zeukaten lokalaren aurreko aldean aspaldi egindako argazkia.

JULIAN GALLO

"Bi urtean behin presidentea aldatzen dugu. Lan handia dago egiteko, eta erraza da nekatzea"

Udalak lokala utzi zienean egoitze lanak egin behar izan zituzten, eta bazkide bakoitzak 30.000 pezeta ordaindu zituen.

Lokal berrian daudenetik bost presidente izan ditu Debagoiena zikloturista taldeak: Jose Miguel Landa, Emilio Sáez, Victor Ore-

"Lehen, ehun bazkide baino gehiago ginen, inguruko herrietan ez zegoen eta zikloturista talderik"

gi, Bernardo Arantzabal eta oraingoa, Julian Gallo. Presidente aldaketa bi urtean behin egiten dute, ez da komeni denbora gehiago egotea; "Azken batean ardura nahiko handia da" dio Julianek, "denboraldi hasieran fitxa mordo egin behar da, eta gauza asko

"Bazkideek onartzen badute, datorren urterako taldeak maillot berria izango du"

daude zure ardurapean. Martxa zikloturista egin genuenean ere, federatu gabe zeudenek parte hartu ahal izateko lan handia egin behar izan genuen. Azken batean lan bat gehiago da, eta bi urtez egon eta gero, deskantsua gogoz hartzen da.

MAILLOT BERRIA

Bazkideek halaxe onartzen badute, datorren urterako Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeko maillot berria izango dute; "Aurrekoa zaharkituta geratu da, eta dagoeneko Deba Garaia izena Debagoienagatik aldatu dugu. Guzti hori kontutan izanda maillot berria diseinatu dugu, eta oso txukun geratu da. Lehenengo koloreak errespetatu egin ditugu; gorria, berdea eta zuria, horiek dira eta taldeko koloreak, baina diseinua dezente aldatu da". Oraindik zirriborroa baino ez da, baina laster inguruko errepideetan ikusiko dugu, 25 urte eta gero taldea bizirik dagoen erakusle.

Hogeita bost urtean bide luzea

Hogeita bost urtean Arrasateko zikloturista taldean gauzak dezente aldatu dira: izena, presidente ugari, bazkide gehiago eta laster maillota ere aldatuko dute. Aldaketa asko eta kilometro gehiago. Batek daki hogeita bost urtean zenbat kilometro egin dituzten Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeko lagunek. Seguru asko direla. Aurtentokatu, 25 urte egin dituzte, ospakizunetarako nahiko motibo, baina, tamalez, egindakoa

bide luzea izanda ere, bidean geratu denik ere bada. Jose Mari Saizen IV. Memoriala ere ospatu dute aurtentokatu. Jose Mari Saizen klubeko sortzaileetako bat izan zen, eta 1990ean, Gipuzkoako Biran auto batek harrapatuta hil zen. Une gogorak izan ziren haiek zikloturista taldearendako, baina aurrera egitea lortu zuten. Egun, inguruko errepideak ez dira bizikleta gainean ibiltzeko aproposenak, sekulako zirkulazioa izaten da eta. Orain dela

gutxi onartutako zirkulazio lege batek mesede handia egiten die bizikletan ibiltzea atsegin dutenei. Dagoeneko ziklistek errepidetik joateko aukera daukate, eta taldeko joan daitezke. Auto gidariek kontu handiagoko izaten dute talde bat ikusterakoan ziklista bat bakarrik ikusterakoan baino. Baina kontu handiagoko izateaz gain, errespetua izatea ere nahitaezkoa da, dagoeneko asko dira eta errepidean geratu diren txirrindulariak.

ELKARRIZKETA

GENARO LEKUONA/PARROKOA

"Lehenengo, herria ezagutu behar dut, eta ezagutu ondoren, programa sortu"

ARRASATE PRESS

Bihar, zapatua, 19:00etan, emango du aurreneko meza parroko berriak. Genaro Lekuona du ize-na, 62 urte ditu eta Azkoitian urte mordoska egin eta gero etorri da. Arrasate Irratiarekin ere izan da; besteak beste, zera esan du:

Noiz etorriko zara Arrasatera?

Berez, ofizialki, *etorrita* nago. Irailaren 22an Jose Mariren agurra izan zen hemen; eta haren irteerarekin batera izan zen nire sarrera. Edozelan ere, irteerarik gabeko sarrera izan da; hau da, Azkoititik ateratzeko hemen sartu nintzen. Dena dela, domekan, Azkoitian, nire agurra izan zen eta Jose Mariren sarrera; hortaz, zelanbait osatuta geratu da operazioa.

Zer iruditu zaizu parrokoa?


Gustatu zait. Iaz ere gustatu zitzaidan, ibarreko abadeekin hemen izan nintzenean. Iruditu zitzaidan ederto eginda zegoela. Orduan ez nekien urtebete geroago hemen egongo nintzela.

Arrasate ezagutzen zenuen?

Hori gehiegi esatea da. Bergarakoa naiz, eta ume nintzela (50eko hamarkadan) bizikletaz etortzen ginen Zerrajerako igerilekuetara. Oso *urzalea* nintzen, eta naiz, eta hona etortzen ginen.

Eta berriro etorri zarenean zein inpresio egin dizu?

Ona. Herri bakoitzak bere nortasuna du, bere izaera berezia, eta ez dago konparaziorik egiterik. Arrasatek izango ditu bere gauza politikak eta ederrak,



UBANE MADERA

beste edozein herrik dituen moduan. Dena dela, beti iruditu zait gauza materialak baino ederragoak direla pertsonak.

Azkoititik zatoz, baina atzerrian ere ibilitakoa zara...

Hogeita lau urte egin ditut Azkoitian; hara joan baino lehenago 13 urte egin nituen Alemanian, Holandaren eta Belgikaren ertzetik gertu. Han izan nintzen eta orain ere urtero joaten naiz,

oporretan. Bigarren aberria dut.

Zeintzuk dira Arrasaterako dituzun helburuak?

Programa barik etorri naiz Arrasatera. Lehenengo, ezagutu egin behar dut, eta ezagutu ondoren programa sortu. Abade lanetan esperientziak emandako baliabideak badituz, hortaz, ez naiz hutsetik hasiko; baina Arrasateko egoera, zelakoak zareten... ikusi egin behar da.



Arrasateko kolektorea Epeleraino eramango dute

UBANE MADERA

Udalak jakinarazi digunez, kolektorearen azkeneko lanek aurrera segitzen dute. Bestalde, Santa Teresakoak eta Obenerrekakoak hil bukaeran amaituko dituzte.

Udaleko Zerbitzu Sailak adierazi digunez, herriko ur zikinak batzeko kolektorearen azkeneko zatien lanak bide onetik doaz. Horren adibide da Kataide inguruko erreka zatian egiten ari diren lanak.

Berez, kolektorearen bukarako zati hori San Isidroko zubiraino iritsi behar zen hasieran. Izan ere, ez zegoen guztiz zehaztuta non kokatuko zen batutako ur zikinak garbituko dituen araztegia. Baina Zerbitzu Sailak jakinarazi digu dagoeneko zehaztu dutela araztegiaren behin betiko kokagunea. Epelen eraikiko dute; hortaz, Arrasateko kolektorea ere haraino eramatea erabaki dute.

Lan horiek egin ahal izateko,

Zabaletan lehenagotik egiten ari diren lanak eta Eroski parean egiten ari direnak aprobetxatu dituzte, eta dagoeneko hasi dira Kataideko zatiarekin. Mariezkurrena izeneko enpresa ari da lanok egiten, eta Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza ere badu.

Orain, Arrasateko kolektorea laster eginda egongo bada ere, galdera da ea noiz ipiniko duten abian.

SANTA TERESA ETA OBENERREKA

Bestalde, herrian egiten ari diren gainerako lanen artean, Obenerrekakoak eta Santa Teresakoak daude. Denbora dezente darimate lanak egiten. Eta, auzotarrak eragozpen bat baino gehiago jasaten ari dira: autobusaren gerezaleku aldaketa dela, edo edukiontziena, aparkalekuena... Kontuak kontu, Zerbitzu Sailak jakinarazi digu aurreikusitakoa betetzen bada bi auzo horietako lanak hilabete honen amaieran bukatuko dituztela.

Zuntz optikoa sartzan ari dira kolektorearen lanak aprobetxatuta

UM

Dagoeneko Zerrajerako etxebizitzetan badute zuntz optikoa. Eta, poliki-poliki, herriko beste leku batzuetan ere sartzan ari dira. Adibidez, kolektorearen lanak aprobetxatzen ari dira hori egiteko.

Nafarroa etorbideko, Grupo San Juaneako eta Zaldibarko bizilagunek dagoeneko zuntz optikoa dute eturen etxebizitzetan. Euskaltelen bitartez ari dira Arrasaten zuntz optikoa sartzan, eta oraingoz etxebizitzetara eramango dute. Era berean, beste alde batetik, Fagorrera,

nerako etxebizitzetara zabalduz joango da. Hori lortzeko, jakina, zuntza herri osoan sartu behar da, lur azpian, etxebizitzetaraino. Eta, Arrasaten, gaur egun, kolektorearen lanak aprobetxatzen ari dira hori lortzeko. Santa Teresako eta Obenerrekako lanekin ere gauza bera egin dute, baita azken urteotan Arrasaten egin diren azpiegitura lanekin ere.

Udaleko Zerbitzu Sailatik jakinarazi digutenez, zatika sartzan ari dira zuntz optikoa Arrasaten. Adibidez, oraingo zatia bukatu eta gero, alde zaharreko etxebizitzetara eramango dute. Era berean, beste alde batetik, Fagorrera,

Mondragón Unibertsitatara, Kutxako bulegoetara eta horrelako zerbitzuetara zuntza eramateko egitasmo berezia ipiniko du abian Euskaltelek.

ZUNTZAREN ABANTAILAK

Teknologiaren aurrerapenek ohi duten moduan, zuntzak ere onurak ekarriko ditu herritarrendako. Batetik, telefonoarekin batera, Internet eta telebista seinalea helduko da zuntzaren bitartez etxebizitzetara. Bestetik, seinale horiek interferentzia barik jasoko dira (eguraldiak, adibidez, ez du eraginik izango telebistako irudiaren kalitatean).


LABUR

Ibai-Arte elkarteak hiru zozketa antolatu ditu, hemendik urte amaierara arte

Udaberrian eta udan egin zuenarekin jarraituz, Arrasateko merkatarien elkarteak, Ibai Artek, hiru zozketa antolatu ditu, abendura arte. Horrela, urrian eta azaroan 600 euro zozketatuko dituzte Ibai Artek komertzioetako bezeroen artean. Abenduan, berriz, 3.000 eurokoa izango da saria. Ohi bezala, saltokietan erosketaren bat egitearren eskuratzen dira zozketarako txartelak. Zozketak hil amaieran izango dira.

AED eta Txatxilipurdi elkarteek sinatu dute Udalarekin urteroko hitzarmena

Oraingo astean gauzatu da Arrasateko Udalaren eta AEDren eta Txatxilipurdiren urteroko hitzarmena. Horren arabera, elkarte horiek ia 47.000 euroko dirulaguntza jasoko dute urteroko jarduerarako. Oro har, Arrasaten euskara dinamizatzea da elkarte horien helburua. Sinadura ekitaldian izan ziren, besteak beste, Joseba Ezpeleta AEDko presidentea, Mikel Irastortza Txatxilipurdiko presidentea eta Xabier Zubizarreta alkatea.



Herrian eraikiko dituzten eta eraikita dauden etxebizitzaren gainean ezarri beharreko irizpideak onartu zituen udalbatzarrak.

POLITIKA/ Osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak astelehenean

Etxebizitza politika onartu du Arrasateko Udalak

UBANE MADERA

Hainbat gairen artean, Arrasaterako etxebizitza politika onartu zuen astelehenean udalbatzarrak. Etxebizitza eskuratzeko dagoen zailtasunari aurre egiteko sortutako egitasmoa da. Bestetik, Gelma-ekin lotutako gaia datorren asterako utzi dute.

Minutu bateko isiluneaz hasi zen asteleheneko osoko bilkura. Alderdi sozialistak horrela eskatuta, ETak Leitzan egindako azkeneko atentatua gaitzestea gura izan zuten. Arrasateko Sozialista Abertzaleak taldearen abstentzioarekin egin zuten isilune hori.

GAIK ATZERATUTA

Gai zerrendari begiratu gero, zehaztutako 22 gaietatik 20 landu zituen udalbatzarrak. Izan ere, bi datorren asterako utzi zituen: Gelma lantegiaren leku aldaketa eta Egitamu Orokorra behin-behinerako onartzea. Kontua da Egitamu Orokorra zehazten duen moduan Gelma orain dagoen lekutik kendu eta erreka beste alde-ramango dutela. Baina Gelmako batzordeak eta zuzendaritzak oraindik ez dute horren gaineko akordiorik lortu. Hori dela eta, Arrasateko Udalak proposamena egin die eta Gelmako ordezkariak astelehenean berriro ere osoko bilkura izango da udaletxean, gai hori berriro jorratzeko. Horrek Egitamu Orokorrean eragina du-

nez, Egitamuaren behin-behineko onarpena ere datorren asteko bilkurarako utzi zuten zinegotzietan.

ETXEBIZITZA POLITIKA AURRERA

Bestalde, jorratutako gaien artean, Arrasaterako etxebizitza politika onartu zuen udalbatzarrak. Hau da, etxebizitzaren gainean ezarri beharreko irizpideak proposatu zituzten osoko bilkuran. Arrasateko Sozialista Abertzaleek eta Eusko Alkartasunak proiektuaren alde bozkatu zuten, hortaz, onartuta geratu zen. Alderdi sozialistak, berriz, kontra bozkatu zuen, Paco Garciaeren esanetan, planak ez duelako argi erakusten espekulazioa gerara-

ziko duenik; eta etxebizitza politika Egitamuarekin bat datorrenez, orduan moduan, orain ere kontra bozkatu dutela. Gauza bera egin zuen PPK, baita EAJK ere. Jose Mari Loitiren azalpenaren arabera, Udalaren aurrekontuaren kontra bozkatu zuten, orain ere gauza bera egin behar dute etxebizitza politikarekin. Ezker Batua, berriz, abstentitu egin zen.

Kontuak kontu, plan hori onartu egin zuten eta abian ipiniko dute herrian. Besteak beste, aurreikusitako 10-15 urteotan 2.000 bat etxebizitza eraikiko dituztela, 1.000 inguru interbentzio publikokoak izango direla eta beste horrenbeste libreak.

MOZIOAK

Gainerako gaien artean, EAJK aurkeztutako bi mozio eta EAk aurkeztutako beste bat aztergai izan zituen udalbatzarrak, guztiak ere, ETaren azkeneko atentatuak gaitzesteko. EAJrenak biak onartu ziren, Arrasateko Sozialista Abertzaleek kenduta, gainerakoek alde bozkatu zuten eta. EArena, berriz, puntu puntu bozkatu zuten, zinegotzietan hala eskatuta. Puntu guztiak onartu zituzten, baina boto kopuru desberdinekin. Adibidez, puntu batean alderdi guztiak bat egin zuten. Horren arabera, onartzen dute bide politiko eta demokratikoak erabiltzeko eta "indarkeria-adi-erazpen guztiak behin betiko desagerrarazteko asmoak bakarrik ziurtatutako dutela prozesua ondo bideratzeko baldintzak".

Gelmako batzordeak eta zuzendaritzak astelehenean izango dute proposamena aztertzeko

Udaleko etxebizitza politikan zehazten denez, 2.000 etxebizitza eraikiko dituzte Arrasaten

LABUR

Diru laguntzak eskatu ditu Udalak herrian zenbait lan egin ahal izateko

Oraingo asteko Gobernu Batzordeak onartutako gaien artean, zenbait diru laguntzaren eskaera ere bazen. Batetik, Erguin auzoa berriro urbanizatzeko proiektuaren lehenengo zatirako eta alde zaharrenean egin beharreko zenbait lanetarako laguntza eskatu dio Udalak Jaurilaritzari. Bestetik, eraikin eta urbanizazio publikoetan ailegarratasuna hobetzeko laguntza ere eskatu die ONCE eta IMSERSO elkartei. Hain zuzen ere, Uarkapeko erabilera antzeko eraikinerako, herriko zenbait espaloi egokitzeko, Kalealdeko eta Gernika oinezkoen zumardiaren arteko eskailera egiteko eta Santa Teresa eskolarako.

Zabaletako lanekin lotuta ere dirua eskatu dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari. Kasu honetan, ordea, eta Udalaren eta Jaurilaritzaren arteko hitzarmenean zehazten denez, aurreneko emakida ematea dagokio Jaurilaritzari. 114.192 euro pasatxokoa da emakida hori, eta Udalak emateko eskatu dio Diputazioari. Aipatutako bi erakundeen artean sinatutako hitzarmenaren arabera, Diputazioak 342.037,08 euroko diru laguntza eman behar dio Udalari lan horiek egiteko. Bi urtetan emango du laguntza.

Beilatokiaren eta errauts-kutxen prezioak zehaztu ditu Arrasateko Udalak

Arrasateko Udalak San Kristobal hilerriak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak zehaztu ditu oraingo astean. Aurreratu zuen moduan, 60 eurotan ezarri du beilatoki zerbitzua erabiltzeko salneurria. Bestalde, errauts-kutxa bakoitza 24 euro kostatuko dela ere zehaztu du. Prezio horiek ezartzeko orduan Udalak kontuan hartu du, batetik, zerbitzu horiek herritarren eskariari erantzuteko sortu dituztela eta, bestetik, zerbitzu horrekin Udalak ez duela irabazteko xederik.

Edozelan ere, bi prezioak behin-behinerako ezarritakoak dira, harik eta sakonago aztertu arte zerbitzu horien kostuak zehaztu diren. Era berean, prezioak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu eta gero, hilabetez jendaurrean izango dira, alegaziorik bago, horiek jasotzeko.



Atera dituzte miliziano biren gorpuzkinak

Berreskuratu dituzte Bedoñan zeuden miliziano biren gorpuzkinak. Horretarako, Aranzadi Zientzia Elkarteak zazpi lagunek domekan egun osoan jardun zuten Kurtzetxikiko kobazuloan. Hezur ugari atera zituzten, baina ez zuten datu gehiegirik aurreratu gura izan, harik eta Francisco Etxeberria auzitegiko medikuak gorpuzkinak Antropologia Saileko laborategian aztertu baino lehen. Edozelan ere, Aranzadi elkarteak idazkari nagusi Juan-txo Agirrek adierazi zuen garbi dagoela frankistek eraildako miliziano bi direla, eta baliteke bizkaitarrak izatea.

ZERBITZUAK/ Leintz Garraioak enpresak herri autobusaren gaineko urteroko txostena aurkeztu du

Urte batetik bestera gero eta erabiltzaile gehiago ditu Arrasateko urbanoak

UBANE MADERA

Urte oparoa izan du aurten herri autobusak. Hala erakutsi dute autobusa kudeatzen duen enpresak, Leintz Garraioak, plazaratutako datuek. Adibidez, Udalean aurreikusitako daturik positiboena %14 gainditu ditu Arrasateko autobusak.

Urte batetik bestera geroago eta bidaiari gehiago ibiltzen dira Arrasateko autobus urbanoan. Leintz Garraioak enpresak urteroko txostena aurkeztu du Udalean, eta gorakada hori erakusten dute publikatutako datuek.

Horien arabera, 189.635 bidaiari ibili dira iazko irailetik aurtengo irailera arte autobus urbanoak dituen bi lineetan, Udalak aurreikusitako daturik positiboena baino %14 gehiago. Horietatik, 1 Linean ibiltzen da bidaiari gehien; eta linea horrek dituen geralekuen artean, San Frantziskokoa da erabiliena, enpresaren esanetan, "herriarrei herriko auzorik altuenetara azkar eta erraz iristeko aukera

ematen dielako". Arimazubiko eta Ospitaleko geralekuak, berriz, uste baino gutxiago erabiltzen dituztela ere gaineratu du Leintz Garraioak enpresak. Dena dela, poliki-poliki bi geraleku horiek geroago eta gehiago erabiltzen dituztela ere adierazi du.

EGUNAK ETA HILABETEA

Astegunei begiraturaz gero, egubakoitzetan erabiltzen dute gehien herri autobusa; azoka txikia izaten da egubakoitzetan, eta jendeak autobusa erabiltzen du erosketekin doanean. Gauza bera gertatzen da arratsaldean Eroskirekin; jende askok egubakoitzak aprobetxatzen ditu erosketak handiak egiteko. Batez beste, egubakoitzetan 742 herritar ibiltzen dira autobusean. Gainerako egunetan 600 eta 700 bidaiariren artean ibiltzen dira eta zapatuetan 500 bidaiari baino gutxiago.

BONOBUSAK GORA

Herri autobusa ezarri zenetik bi urte pasatu direnean igarri den beste datuetako bat da bonobusaren erabilerak gora egin dela, bereziki, euroa erabiltzen ari

"189.635 bidaiari ibili dira herri autobusean iazko irailetik aurtengo irailera arte"

garenetik. Emandako datuen arabera, autobusa erabiltzen dutenen %61ek ohiko txartela erosten dute; eta %39k bonobusa erabiltzen dute, iaz baino %7k gehiago.

HOBETU GURAN


Oro har, eta emaitza positibo horiek ikusita, Leintz Garraioak enpresak uste du garaia dela zerbitzua hobetzeko. Enpresaren iritziz, argi geratu da Arrasaten autobus urbanoa beharrezkoa dela, eta uste du Leintz Garraioak enpresa modu eraginkorrean betetzen ari dela zerbitzua. Orain, enpresak gurako lukeena da herri autobusaren maiztasuna handitzea, bai 1 Linean zein 2 Linean. Horretarako, beste bi autobus behar dituzte.



UBANE MADERA

Autobus urbanoaren zerbitzua hobetu gura du Leintz Garraioak enpresak.

"ASISKOREKIN MARRAZTU NAHI?"



Osteguna, urriaren 17an arratsaldeko
19:00etan Monterongo aretoan.
Hizlaria: Asisko Urmeneta, Komikilaria.





Arrasateko Udala

Gazteria Saila ■

JAI GIROA, PARRANDA ETA GOZAMENA MARITXUTAN

Giro polita izan dugu aurtengo Maritxuko gauean. Eguraldiak ere lagundu zuen, eta biek bat eginik, jendea barra-barra ibili zen Arrasateko kaleetan. Aurten ere Euskal Herriko leku ugariatik etorri dira jaizaleak, baita Euskal Herri kanpotik ere. Hori bai, jaiak agintzen duen moduan, guztiak ere dotore-dotore eta gau berezia pasatzeko asmoarekin. Beste urtebetez, hemen izan dugu Maritxuren automobil dotorea; zaharra izan arren, leial eta fin egiten dio urteroko bisita txikite-roen amari; beste urtebetez, amabirjinaren zintzilikariak ere ezinbesteko elementu bihurtu dira jaizaleen lepoetan; beste urtebetez, amabirjinak ere egin du bere miraria: ez dago pozik Madrilekin, eta hala jakinarazi dio; eta beste urtebetez, jai nagusitu da Maritxuko gauean. Ezin da askoz gehiagorik eskatu. Hortaz, Maritxuri eskerrak eman eta datorren urtera arte agurtuko dugu. Ondo izan zaitezela zure kaxoi horretan. Bitartean, Maritxuren seme-alabak ikusiko ditugu, jai ospatzen:





Kenci Arrasatek Siglo XXI taldearen kontra jokatu du zapatuan

XABIER URZELAI

Kenci Arrasate saskibaloitza taldeak denboraldiko bigarren partidua jokatu du bihar, zapatua, arratsaldean, Iturripen. Helburua denboraldiko lehenengo puntuak eskuratzeko izango da, joan den astean Iker Zubiriaren mutilak esku-hutsik bueltatu ziren eta Leioako Askartza taldearen kantxatik.

Biharko partidua oso gaitza izango da, Donostiako Siglo XXI taldeak jokalaritza gazte bezain onak ditu eta. Iker Zubiriaren mutilek gogotik egin beharko dute lan, baina akatsik egiten ez badute eta joan den asteko partiduko bigarren eta hirugarren laurdenetan jokatu zuten moduan jokatzen badute, puntuak Iturripen gera daitezke. Kontua da guztia egin beharko dutela ondo eta azken laurdenean ezin izango dutela behera egin.

AZKEN LAURDENEAN EUTSI

Joan den astean horixe izan zen taldeari falta izan zitzaiona, azken laurdenean ordura arte egindako lanari eustea, alegia. Lehenengo hiru laurdenetan arrasatearrak izan ziren partiduan nagusi. Hasierako laurdenean



Denboraldiko lehenengo partiduan 76-65 galdu zuen Kenci Arrasatek.

urduri samar ibili ziren, eta gura baino baloi gehiago galdu zituzten. Hala ere, buruz buruko defentsa estuari esker, Iker Zubiriaren mutilek partiduan parekotasunari eustea lortu zuten. Bigarren eta hirugarren laurdenetan erakutsi zuen Arrasatek bere jokorik onena, erasoko jokaldi bikainak defentsa gogorarekin tartekatu zituen eta. Askartzako entrenatzaileak hainbat ahalegin egin zituen Arrasateko tal-

dearen jokoak behera egin zezan, baina dena alferrik. Mondragoetarrak ziren jaun eta jabe. Azken laurdenera arte bai, behintzat. Azken minutuetan bizkaitarrek zonakako defentsa egin zuten, eta arrasatearrak ito egin ziren bertan. Arrasatearrak ez ziren gai erasoak amaitzeko, ezta defentsan leioarrak geldiarazteko ere. Azkenean, merezi baino tarte handiagoarekin irabazi zuen Leioako Askartza taldeak: 76-65.

FOTOKIROLA



Mondra erregional mailako liderra da

Mondra 3-2 nagusitu zen domekan Pedrusko taldearen kontra, eta erregional mailako liderra da, zazpi punturekin. Arrasatekoen golak Jokin Pavok eta Eldin Zivojevickek, lehen zatian, eta Asier González Tiri-k, bigarrenean, egin zituzten. Lehenengo zatian etxeok ongi ibili ziren, baina bigarrenean, urduritasuna zela eta, jarraitzaileek gura baino gehiago sufritu zuten. Oraingo asteburuan Mondrako mutilek Zestoaren zelaira joan beharko dute puntu bila.

FOTOKIROLA



Marino Lejarretak hamabi mila euro baino gehiago banatu zituen

Joan den astean, Monte tabernako Espainiako Itzuliko Porrako sariak banatu zituzten. Marino Lejarretak ehunka sari jaso ditu, baina joan den eguztenez Marinori berari tokatu zitzaion sariak banatzea. Irabazlea Atxianpon izeneko taldea izan zen, eta 5.376 euro eskuratu zituen. La de cenas taldeak 3.360 euro eskuratu zituen eta Bidebietak, berriz, 1.680 euro. /X.U.

ERRUGBIA

Zapatuan hasiko du Arrasateko Errugbi Taldeak aurtengo denboraldia

Arrasateko Errugbi Taldeak etxean, Garagartzan, jokatu du denboraldiko lehen zeingehiagokoa. Arrasatearrek lagun arteko hainbat partidua jokatu dituzte aurrendenboraldian, eta partidua esan-guratsuen, Eibarren kontra jokatuakoa, irabazi egin zuten.

Arrasatearrek Liga Txapelketako lehen partidua bihar jokatu dute, goizeko hamaiketan, Irunen kontra. Joan den urtean, Arrasateko taldeak arazo handiak izan zituen txapelketa behar den moduan jokatzeke, jokalaritza gutxi zeuden eta. Zalantza askorekin hasi ziren, eta gero sekulako denboraldia egin zuten Arrasateko mutilek. Ea aurtengo goian egoteko aukera izaten duten.

PILOTA

Lehen jardunaldian Arrasateko pilotariak lau partidutatik bi irabazi zituzten

Arrasateko pilotariak Gipuzkoako Txapelketako lehenengo partidua jokatu zituzten aurreko asteburuan, eta etxeok lau partidutatik bi irabazi zituzten. Horietako partidua bat ez zen jokatu, eskuz banako gazte mailako partidua, hain zuzen. Arrasateko Arroyabek, partidua jokatu barik, 22-0 irabazi zuen, aurkaria ez zen eta azaldu. Gazte mailako beste partiduan Zuazuak eta Agirrek ordezkatu zuten Arrasate, eta azpeitiarrek 22-6 irabazi zieten.

Seniorretako bigarren mailan Uribarrenek eta Errastik 22-20 galdu zuten. Eta, azkenik, seniorretako lehen mailan Zugasti eta Lazkano 22-11 gailendu ziren.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ZEURE BURUA BETI EDER IKUSTEA GUSTUKO DUZU? BADAKIZU ZER EGIN DEZAKEGUN ZUGATIK?

Tratamenduak:

- Aurpegikoak
- Gorputzekoak LIPOFIT IT TAC-ekin
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari hotz eta beroarekin
- Laser bidezko depilazioa medikuarekin
- Makillajea
- Solariuma
- Kirurgia estetikoa
- Ezpainen handitzea
- Arpegiko mantxak
- Zimurrak
- Dietak
- Barizeak

Aginaga medikuarekin (1.806 elkargokide zenbakia). Eskatu eguna eta ordua.

*Analisi pertsonalizatua, behar duzun tratamenduaren diagnostia egiteko.
Orain, zure gorputzarekin gusturago egon zaitezke.*

MIREN GARAI

Zarugalde 23-2 ezkerre.

Tel.: 943 79 96 90




Udazkeneko eskaintza:

gorputzeko peeling-a alga eta
esentzia-olioekin,
paper hau aurkeztuz gero,
3€-ko deskontua!

“Gazteak eta Aisialdia” XIII. Argazki Lehiaketa

Lanak
aurkezteko epea:
URRIAK 15



BI KATEGORIA

- A) Deba Goieneko 13-17 urte bitarteko gazteak, taldean zein banaka.
- B) 18-35 urte bitarteko edozein.

SARIAK

A) kategoria: (modalitatea bereiztu gabe)

1. saria: 300 €

2. saria: 150 €

B) kategoria:

• zuri-beltzean

bildumarik onena: 500 €

argazkirik onena: 300 €

• koloretan

bildumarik onena: 500 €

argazkirik onena: 300 €

Emakume Sailaren saria: 300 €



Argazkia: Santi Iglesias



Arrasateko Udala

Gazteria Saila ■
Emakume Saila ■



ARRASATE KIROL PROIEKTUA



ARRASATE KIROL PROIEKTUA

Aurten ere, beste urteetan moduan, kirola eginez bikain pasatzea izango da helburuetako bat.

ARRASATE KIROL PROIEKTUA, ABIAN

Oraingo asteburuan hasiko dituzte neska-mutikoek kirol jardunaldiak

Ikasturtea prestatzen ibili eta gero, AKPk asteburuan hasiko ditu jardunaldiak

XABIER URZELAI / AKP

Ikasturte berriarekin batera, Arrasate Kirol Proiektua ere abian da dagoeneko. Orain arte, proiektuko arduradunak taldeak egin eta ekintzak abian jartzen ibili dira, urtero moduan. Eta horrela, oraingo asteburutik aurrera kirola izango da nagusi.

Kirol ekintzak izango dira nagusi oraingo asteburuan. Ikasturteko lehenengo jardunaldian aurrekiroleko neska-mutikoek mini-eskubaloia praktikatu dute, eta multikiroleko neska-mutikoek hasiera emango diote mini-saskibaloiko txapelketari. Aurrekiroleko gaztetxoak zortzi eta hamar urte bitartekoak dira, eta multikirolekoak, berriz, hamar eta hamabi urte bitarteko gazteak dira. Urrian barrena bi kirol horiek sakonduko dituzte.

ESKOLA MENDIZALETASUNA

Aurreko ekintzez gain, Arrasateko Kirol Proiektuak Eskola Arteko XV. Mendi Lehiaketara joateko bidaia antolatu du.

Eskola Arteko XV. Mendi Lehiaketaren amaierara iritsi gara, eta Gipuzkoako Mendizale Federazioak, urtero bezala, Finalista Eguna ospatzeko mendi ibilaldia antolatu du. Finalistak ez izan arren, gura izanez gero, Gipuzkoako ikastetxeetako nes-

ka-mutiko guztiek parte har dezakete. Mendi ibilaldia urriaren 27an izango da (dominga), Azpeitian. Ibilaldia Azpeitiko plaza nagusian hasiko da, 08:30ean. Ibilaldiak, gutxi gorabehera, ordu eta erdi iraungo du. Sari banaketa eta oparienez zozketa herriko plazan bertan egingo dute, eguerdiko hamabietan.

Mendi Lehiaketan parte hartu nahi duten Arrasateko ikasleek euren ikastetxeko Arrasate Kirol Proiektuko koordinatzailearengana jo beharko dute. Izena emateko epea urriaren 20a baino lehenago egin beharko dute, eta koordinatzaileak arduratuko dira irteeraren berri emateaz.

HILABETEKARIA

Arrasate Kirol Proiektuko kideek joan den ikasturtean guraso-

ei egindako galdeketa gauza batez ohartu ziren: gurasoek informazio gehiago gura zuten. Eskaera horri erantzuna eman guran, **AKP Hilabetekaria** egitea erabaki zuten. Eskola kiroleko hilabetekari horrekin gurasoek kirol ekintza guztien berri izango dute. Hilabetekariak hainbat atal izango ditu. Lehenengo orrialdean, azalean, ekintzaren bateko argazkia azaltzeaz gain, izenburuak ere topatuko dituzte. Bigarren orrialdean informazio orokorra izango da, eta bertan AKPreko gaineko informazioa izango da: ezaugarriak, historia apur bat, helburuak, eta abar. Hirugarren orrialdean aurrerantzean egingo dituzten ekintzen berri emango dute AKPkoek, eta azkeneko orrialdean denbora-pasak izango dira.

Aurten, 12 urte

Arrasate Kirol Proiektuak hamabi urte egingo ditu aurten. Hamabi urte Arrasateko neska-mutikoek kirolaren inguruan hezten. Aurten ere gaztetxoekin hasi eta hamalau urterainoko neska-mutikoekin egingo dute lan. Adin bakoitzerako hainbat ekimen antolatu dituzte, kirolean, gauza guztietan bezala, gauzak apurka-apurka egitea komeni da-eta. Geroago eta argiago dago kirol heziketa ona izatea berebizikoa dela. Helburua ez da punta-puntako kirolariak lortzea edo kirol taldeen harrobia bultzatzea, bizitzan kirolak duen garrantziaz ohartaraztea baizik.

ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Astelehen arratsaldean ere izena emateko aukera izango da Monterronen

Martitzena eta eguaztenena ziren Zaldibarko Areta Futbol Txapelketan parte hartzeko izena emateko egunak. Antolatzaileen helburua da joan den urtean izan zen talde kopuruari eustea, eta, hori dela eta, astelehenean ere, urriaren 14an, izena emateko aukera izango da.

Martitzeneko datuen arabera, hainbat talde hurbildu ziren Monterroneraino informazio bila edo izena emateko asmoarekin. Guztira, hogeita hamar inguru pasatu ziren Monterronetik, baina guztiak ez zuten izenik eman. Eguaztenerako beste horrenbeste espero zituzten, baina antolatzaileen iritziz, izena emateko epea asteleheneraino luzatzea oso gomendagarria izan daiteke. Jendeak horrelako gauzak azken unean egiten ditu, eta seguru, astelehen arratsaldean jende asko hurreratuko dela Monterronera. Izena emateko arratsaldeko zazpietatik aurrera egongo dira antolatzaileek Monterron jauregian.

'HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN'

'Hiru Haundixek Hiru Egunean' probarako izena emateko epea urriaren 23ra arte

AED elkarteak *Hiru Haundixek Hiru Egunean* proba antolatu du. Proba azaroaren 1ean, 2an eta 3an izango da, eta izena emateko epea urriaren 23an amaituko da.

Probako lehenengo egunean parte hartzaileek Muruatik Gobeiara igo eta gero Urkiolaraino joan beharko dira. Bigarren egunean Urkiolatik Anbotora igoko dira, eta gero, Leintz Gatzagaraino joan beharko dira. Azkeneko egunean, hirugarrenean, Leintz Gatzagatik Aizkorrikako bidea hartuko dute, eta proba Arantzazun amaituko da. Gogoratu plaza mugatuak izango direla, eta, gehienez, 40 parte hartzaile izango direla. Hiru egun horietan parte hartzaileek aterpetxeetan egingo dute lo, eta motxilak furgonetan eramango dituzte leku batetik bestera. Lehenengo eguneko bazkaria nork berea eraman beharko du, baina gainerako bazkari eta afariak antolatzaileek jarriko dituzte.

FOTOKIROLA



San Migeletako Arku Txapelketan bigarren

Oñatiko San Migel jaietan Arrasateko arkulariek sekulako lana egin zuten. Txapelketa Robin Apple modalitatean jokatu zuten, eta Arrasateko Arkulari Taldean Juan Mari Errasti, Fernando Kasatorre eta Mikel Lasa aritu ziren. Juan Mari Errasti polea-arkuarekin aritu zen, Fernando Kasatorre arku olinpikoarekin, eta, azkenik, Mikel Lasa klubeko arkuarekin. Arrasatearrak bigarrenak izan ziren Eibarko taldearen atzetik. Hirugarrenak Durangokoak izan ziren. /X.U.

ELKARRIZKETA

SERGIO ARROYO/BIDEO EGILEA

“Arrasateren eta ‘skate’-aren gaineko muntaiak oso harrera ona izan du”

IKER BARANDIARAN

Sergiok 26 urte dauzka eta beste zaletasun batzuen artean, bideoak egiten ibiltzen da. Gehienetan, ‘skate’-aren gaineko bideoak egiten ditu, baina azkenaldian, Super 8 formatuarekin ere saikerak egiten hasi da.

Zein ikasketak egin dituzu?

Egia esanda, bideoarekin lotutako ikasketak neure kasa egin ditut. Bestela, Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritza ikasi nuen, Publizitateko espezialitatean. Hala ere, unibertsitatean ikasten hasi aurretik, bideokamerarekin grabaketak egiten hasi nintzen. Horrez gainera, orain dela pare bat urte neure kasa Informatika ikasten hasi nintzen, Diseinu Grafikoa, Bideoa eta Audioa, batez ere, Premier programa.

Noiz konturatu zinen bideoarekin gauzak egitea gustuko zenuela?

1993. urtean, aitak bideokamera erosi zuen eta poliki-poliki kamera *neureganatzen* hasi nintzen. 1989. urtean, bideokamera eduki aurretik, *skate*-arekin irristatzen hasi ginenean, beste lagun batzuk bideoarekin grabatzen ikusten nituen eta jakin-mina piztu zitzaidan. Poliki-poliki kamerarekin *skate*-aren gaineko irudiak grabatzen hasi nintzen, nahasketak egiteko mahaia erosi nuen... Lan guztiak bideotik bideoa egiten, den-dena analogikoa. Gero, beste kamera bat erosi nuen, aurrekoaren antzekoa bada ere.

Unibertsitateko ikasketak bukatu eta denbora gutxira Madrilera jo zenuen. Zein helbururekin jo zenuen Madrilerara eta zer egin zenuen han?

2001. urtean, Publizitate ikasketak bukatu nituenean, konturatu nintzen publizitatearen arloan lana topatzea oso zaila zela. Kanpoan dagoena ezagutzearren,artzelona joatea pentsatu nuen, baina lagun batzuek Madrilera joatea erabaki zuten eta haiekin joan nintzen. Madrilan lau bat hilabete egin nituen, eta oso esperientzia ona izan zen. Beste gauza askoren artean, telebistak barrutik zelan funtzionatzen duen ikusi nuen. Heldu eta gutxira, diskoteka baten Lolitaren kontzertu baterako instrumentuak jasotzen hasi nintzen eta bukaeran, Interneterako iragarkiak egiten ibili nintzen. Bestela, T5-en eta TVEn lanean eta futboleko Txapeladunen Ligarako prestatze lanak egiten ibili nintzen.

Eta Madrilan bideoekin lotutako lanik egin zenuen? Ez nuen halako ezer egin.



IKER BARANDIARAN

“Aspalditik nabil irristatzen ibiltzen direnen trikimailuak irudietan biltzen”

Lanetik kanpo, berriz, etxean, muntaia batzuk egin nituen.

Zein lan mota egiten dituzu bideoarekin?

Batez ere, irristatzen ibiltzen diren lagunen irudiak hartzen ditut eta gero muntatu egiten ditut. Aspaldiko asmoa da bideo baten irristatzen ibiltzen garenon trikimailuak biltzea. Eta 1993tik gaur eguneraino lagun dudak Balerdirekin horretan ibili naiz. Ohiko kirolek ez naute askorik erakartzen, baina *skate*-ak, ordea, bai. Are gehiago, *snowboard*-arekin ibiltzen den *Pitu* arrasatearrarekin lan bat egiteko asmoa daukat.

Egindako lanak jendaurrean erakutsi dituzu?

Bueno, egindako lan gehie-

“Film laburrak egiteko asmoa daukat, eta hainbat gidoi prestatu ditut dagoeneko”

nak irristatzen ibiltzen diren lagunei bidali izan dizkiet. Azkena, Arrasateren eta *skate*-aren gaineko muntaia, Arrasateko gaztetxeko film laburren emanaldi baten eman zuten, eta oso harrera ona izan zuen. Oso gustura geratu nintzen, eta nire lanak gehiago zabaltzeko asmoa daukat.

Orain, Super 8 formatuarekin lanak egiten hasi zara...

Bai. Salamancako lagun batzuek bideo bat bidali zidaten eta hasiera Super 8 formatuan egin zegoen. Asko gustatu zitzaidan, eta Interneten bidez kamera bat erosi nuen. Jose Gregorio Izkuek eta biok proiektu bat daukagu eta horretan gabilta. Horrez gainera, *Nothing Without* fantzinearekin ere buru-belarri nabil.

‘Printze txikia’ txotxongilo lana ikusgai Amaia antzokian

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Taupada taldeak *Printze txikia* izeneko txotxongilo lana eskainiko du, Amaia antzokian, 17:00etan. Ipuin klasiko horretan oinarrituta dago ikuskizuna eta, batez ere, sei eta hamabi urte bitarteko ume eta gaztetxoendako zuzenduta dago.

Taupada taldea 1977. urtean sortu zuten, Elgoibarren. Hasieran hamahiru-hamalau lagunek osatzen zuten taldea, baina poliki-poliki, eta denborak aurrera egin ahala, partaideak aldatuz joan ziren. Gaur egun, hasierako partaideetatik Edurne Lasa eta Joxe Mari Larrañaga bakarrik gelditzen dira. Azkeneko urteotan egin dituzten muntaietarako aktore berriak aukeratu dituzte.

IBILBIDE LUZEA ETA LAN MORDOA

Taldea sortu zenetik hona Taupada taldeak hainbat emankizun egin ditu. 1978. urtean, *Oilogorrek* izeneko nagusiendako antzezlan prestatu zuen. Handik aurrera, umei zuzendutako antzezlanak prestatzen hasi zen. Horrela, 1988. urtean, *Etxekoak, zer moduz?* izeneko lana prestatu

zuen, eta lan hartan lehenengoz antzerkia eta txotxongiloak uzartu zituen Taupadak. 1994. urtean, Rodariren ipuin baten oinarritutako *Zaldi bat, bi kotxe eta hogeita hamar ile* izeneko lana prestatu zuen. Lan horretan panpinak, aktoreak eta mozorroak tartekatuta zituen. 1997. urtean, kale antzerkiko *Tandem Circus* antzeztu zuen taldeak.

Handik aurrera, euren lan berriak txotxongiloekin egin dituzte Taupada taldekoek; 1998an prestatu zuten *Mari Sorgin* eta 2000. urteko *Printze txikia*, hain zuzen ere.

UMEEN IRUDIMENA BULTZATZEA

Taupada taldeak hasieratik lan guztiak euskaraz egin ditu, *Mari Sorgin*-en lana Euskal Herrikanpo antzezteko gaztelaniazko bertsioa moldatu zuen arren.

Aspaldian, ipuin klasikoan oinarritutako *Printze txikia* lana antzezten dabilta. Ikuskizuneko protagonistak, *Printze txikiak*, umei irudimena aske uzteko gonbitea egiten die. Txotxongilo ikuskizuna da, iluntasunarekin eta ikusmen efektuekin jokatzeko giro magikoa sortzen duena. Sei eta hamabi urte arteko ume eta gaztetxoendako eta nagusiendako ere aproposa.



KULTURAPILULAK

Astelehenean Iban Zaldua izango da Udal Liburutegiko literatura solasaldian

Astelehenean, urriaren 14an, hasiko dira Udal Liburutegian euskarazko Literatura Solasaldiak, 18:30ean. Gaztelaniazkoak joan den egunean hasi ziren. Astelehenean, Iban Zalduaren *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* liburuaren gainean berba egingo dute, eta Iban Zaldua bera ere izango da solasaldian.

Gaztelaniazko Literatura Solasaldietan hogeita bi lagunek eman dute izena –arteak, gizonezko batzuek– eta euskarazkoan, berriz, sei emakumek. Parte hartzeko gonbita egin dute.

Anger musika taldeak kontzertu berezia egin zuen domekan, Albertori agur esateko

Anger taldea sasoiak dabil aspaldi. *Gara* egunkariak euren bigarren CDa (*Jarraitzen digun itzala*) kaleratu zuen eta dagoeneko 3.500 kopia saldu ditu. Taldeko gitarrista Alberto Rodríguez Bartzelonan Soinu ikasketak egiten hasi da eta taldea uztea erabaki du. Joan den domekan, Eskoriatzako gaztetxean *agur-kontzertua* egin zioten Albertoren lagunak.

E, TXO!

LUDOTEKA BERRIA

Txatxilipurdik aditzera eman gura du Seber Altubeko ludoteka itxita dagoela eta berria Okendo kalean (Feli denda parean) jarri dutela. Dagoeneko zabalik dago, astelehene- tik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Aurten ez dute eskoletan izenemate orririk banatuko, eta interesatuei eta gurasoei informazio bila ludotekara bertara jotzeko dei egin diete.

TXIKILANDIARAKO BEGIRALE BILA DABILTA

Txatxilipurdik urtero antolatzen duen Gabonetako Txikilandia parkean begirale izateko epea azaroaren 30a arte zabalik dago. Baldintza bakarrak dira euskaraz jakitea eta hamazortzi urte baino gehiago izatea. Interesatuok, jo Txatxilipurdira izena ematera.

UNIBERTSITATEKO IKASKETETETARAKO BEKAK

Unibertsitateko eta goi mailako bestelako ikasketak egiten dabil-tzan ikasleendako beka deialdia egin du Eusko Jaurlaritzak. Hainbat baldintza akademiko eta ekonomiko bete beharko dituzte ikasleek beka horiek lortu ahal izateko. Eskerak egiteko epea zabalik dago urriaren 15era arte. Informazio gehiago topatuko duzue www.euskadi.net webgunean edo honako telefono zenbakian: 945 01 83 23.

KAZETARITZA DIGITALAREN GAINEKO IKASTAROA

Asmoz Fundazioak kazetaritza digitalaren gaineko Internet bidezko ikastaroa antolatu du. Ikastaroaren helburua da informazio alorreko profesional berriak prestatzea. Irailaren 30era arte izena eman dezakezu, 943 31 08 55 telefonoan.

GUREGAIK/ CURRICULUMAK

Lana topatzeko, curriculumen bitartez geure burua aurkeztu

IKER BARANDIARAN

Iraileko azterketak pasatu dira eta ikasketak bukatu dituztenak lana topatzeko ahaleginetan hasi dira. Nork bere burua saldu beharra dauka, eta horretarako curriculumak izaten dira ohiko aurkezpena.

Hainbat gaztek dagoeneko ikasketak bukatuta izango dituzte, eta ondorioz, lan bila hasteko unea heldu zaie. Ez da kontu erraza izaten nork bere burua saltzea, ezta ere beste batzuek gure burua eta gük balio duguna zenbat estimatzen duten ikustea.


CURRICULUMAK BIDALTZEA

Lan bat eskuratu gura baduzu, curriculumak bidaltzea izaten da

Komeni da curriculumak ahalik eta orrialde gutxienekoa egitea eta argazkia sartzea

ohiko praktika. Ahalik eta orri gutxieneko curriculum baten bitartez zure burua aurkeztea, hain zuzen ere.

Curriculumak zelan egin behar diren azaltzen duten teoria asko daude. Gehienek diotenez komeni da curriculumak ahalik eta orririk gutxien edukitzea;



IKER BARANDIARAN

Gazte batzuek lan handia hartzen dute curriculumak egiteko orduan.

orrialde bat edo bi, gehienez jota. Jaiotze data, gidabaimena baduzu, egindako ikasketak, bestela-

ko heziketa eta egindako lanak agertu beharko dira, baita egungo argazki bat ere.

LOTSABARIK/ Maialen Gaztañaga

“Errieta egitea gustatzen zait”

IKER BARANDIARAN

Maialen oso prestu agertu zen Lotsabarik-eko galderei erantzuteko. Are gehiago, berarekin batera beste bi lagun ekarri zituen. Lotsatuta zegoela esan zuen, baina ez genion sinistu.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Andereño. Errieta egitea gustuko dut, eta horregatik gura nuen. Orain ez daukat oso argi zer izan gura dudana.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Mutil-lagunarekin bizi izaten eta ume pare batekin. Herri txi-

ki baten gustura bizi izango nintzateke, eta posible balitz lanean.

• Zein da, zure iritziz, adin idealala?

Hamasei urterekin oso gustura nago, askatasuna daukat eta daukadan ardura bakarria ikasketak dira.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari eta lagunei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan, ikasketek.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok. Elkarrizketa hau egiteak ere lotsa ematen dit, baita jende askoren aurrean berba egiteak ere.

• Zure alde on bat? Eta txa-

rren bat?

Ez naiz oso pertsona irekia, baina behin ezagututa lagunei asko laguntzen diet.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?


Begiak, argiak direlako eta oso gustuko ditudalako.

• Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Lehenengo, fisikoari eta gero, pertsona hori ezagutzen ahalegintzen naiz.

• Arrasaten ligatzen da?

Ez. Bai mutilak eta bai neskak ere itxiak eta lotsatiak garelako. Denok beti itxaroten gelditzen gara ea bietako batek pausoa ematen duen, eta horretan gelditzen gara.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoko I. maila • ZALETASUNAK: Musika jotzea eta abestea
LIBURU BAT: 'Galdu arte' • FILM BAT: 'Scary Movie' • MUSIKA TALDEA: Denetarik entzuten dut • KIROL TALDEA: Reala

Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiako osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrian erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

CLUB IYOLA

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

BEHEKO INMOBILIARIKATIK

Asier Tabar

IZARRAITZ INMOBILIARIKAKUE

XABIER URZELAI

Asier azpeitziarra da, eta egunero etorten da Mondrague-
ra, lanera. Azpeittian oin dala
hamabi urte ireki euen Izarraitz
Inmobiliarixie, eta Mondragueko
bulegue aurten zabaldu daue.
Asierren esanetan, nekeza da
egunero bueltaka ibilttie, baiñe
ilusituakin dabil erronka barri
horri aurre egitten.

Amets bat?

Eibar eta Mondrague lotzen
dittuen karretefako lanak buka-
ketie.

Eta amets txar bat?

Pertsonala, ingurukuei zerbait
txarra pasetie; bestela, Reala biga-
rren maillara jeistie.

Egin dozun azken biajie?

Tarragonara, oporretan.

Txartel horixe, zeñei?

Politiko danei, jeneralien.

Eta gorrixer?

Bushei eta Sharonei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

Los Intocables de Elliot Ness /
Gutxi leidunten dot / Iron Maiden
gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori bebai.

Tabernetako txikiteue ala
diskotekak?

Txikiteue, duda barik.

Ze dauketzu sobran?

Kotxien egitten dittudan
orduek.

Eta faltan?

Denpora librie.

Lan Mondraguen egitten
dozu, baiñe herrixe bera ezagu-
ketan dozu?

Gutxi, gure baiño gutxiago.

Etxeko zapatillak ala zapa-
tak?


Zapatillekin gustarago.

Alkate izengo bazitze, ze
hobetuko zeunke?

Mondraguen be trafikuen ara-
zue dauketzuela emuten dau.

Eta lehendakari izengo bazi-
tze?

Lan haundixe eukiko neuke.



X.U.

*“Ez dot uste
etxebizitzaren prezioek
askoz gehixago igoko
dienik, muga-mugan
daguz-eta”*

Mendi bat?
Izarraitz.
Bizi izetara hiri batera jue-
tekotan, nora?
Donostiara.
Ezagutu dozun pertsona inte-
resante bat?
Asko ezagutu dittut.
Eta ezagutu nahiko zeunke-
ena?
Steve Harris, Iron Maiden tal-
deko musikue.
Zertan gastauko zeunke
dirue gustora?
Musikan.
Tranpan ibiltteketan nor-
baittekin, zeñekin?
Hillebete bi barru ezkondu egin
biher naz, hortan, momentuz, tran-

*“Dirue musikan eta
Realeko urteroko
abonuen gastetan dot
gustora. Musikan,
batez be”*

pa haundirik ez neuke egingo.
Bizio bat?
Bi: musikie eta Reala.
Telebisiñoko programa bat?
Kiroletako edozein.
Eta irratikue?
Kiroletako edozein be bai.
Etxebizitzaren prezioek ez dau-
ko mugarik?
Nik uste dot muga hori oso ger-
tu daukogule.
Mondraguetarrok nun dau-
kogu bigarren etxie?
Jente asko Mediterraneo alde-
ra jueten da, baiñe Pirinioetara be
jente asko jueten da.
Ze gurago, txaleta, baserrixe
ala 400 m²-ko etxie?
Aukeran, txaleta.

NIREBIDAIA HURA / Ruben Iñiguez

Egiptora / 2000ko udan

Rubenek Mondragoeko beste lagun batekin bisi-
tatu zuen Egipto. Bi urte lehenago hainbat aten-
tatu izan ziren Egipto aldean, eta, turismoa berri-
ro ere bultzatu guran, eskaintza onak zeuden Egi-
pto ezagutzeko. Horrelako eskaintza bat aprobetxatuta
abiatu ziren bi arrasatearrak Egipto aldera, eta lehenen-
go egunean aldaketa handia sumatu zuten: “Hegazkine-
tik jaitsitakoan lehenengo ikusi genuena polizia mordoa izan
zen, eta harrirta geratu ginen. Baina hasierako kontua izan
zen; izan ere, han egon ginen 12 egunean ez genuen inolako
arazorik izan”.

Lehenengo zazpi egunak
Nilo ibaian gora egin zituzten:
“Bidaia oso konbentzionala
egin genuen, giroa oraindik ez
zegoen-eta nor bere kontu joa-
teko. Luxortik Asuaneraino
itsasontziz joan genuen. Hura-
xe izan zen gure hotela, itsa-
sontzia. Eta Nilo eta inguruko
herriak ezagutzeko aukera izan
genuen. “Bidaia hartan hain-
bat tenplu ikusteko aukera izan
genuen, eta benetan ikusgar-
riak dira tenpluok”. Egipto-
rendako Nilo ibaia aberastasun
iturria da, eta Nilo ibaiaren
inguruan dago guztia, apur bat
urrunduz gero desertua baino ez dago”.

Asuanen Abus Simbeleko tenplua eta Ramses II.aren
tenplua ikusteko aukera izan zuten. Asuaneko presa egin
zutenean Ramses II.aren tenplua ur azpian geratu behar
zen, eta harriz harri tenplua desmuntatu eta metro batzuk
gorago berriro ere muntatu zuten.

Bidaia azkeneko lau egunak Kairon egin zituzten.
Hiria ikusi eta piramideak ikusteko aprobetxatu zuten.
Ruben hainbat gauzogatik harrirta geratu zen: “Kairon
jende mordoa bizi da, eta hiriko errepideetan kaosa da
nagusí. Hala ere, auto istripu bat baino ez genuen ikusi.
Hango jendearekin harreman ona izan genuen. Oso zaba-
lak dira, eta ez genuen inolako arazorik izan. Azken baten,
turistak baino ez gara han, baina tratuan egiten sekula-
ko abilezia hartu genuen”.



*“Egipton Nilo
ibaia da
aberastasun
iturri
nagusia”*

XABIER URZELAI



Bi mondragoetarrak, atzean esfingea eta piramidea dituztela.

Herrialde berriak
bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Arrasate
PRESS



ZAHARRENETXETIK



Urribarriko zaharren egoitzan antolatzen dituzten ekintzetan emakumeen parte hartzea handiago izaten da.

Urribarrikoek Aste Kulturala hasiko dute astelehenean

IKER BARANDIARAN

Urribarriko Erretiratuen Elkarteak Aste Kulturala antolatu du Urribarriko egoitzan bertan. Urriaren 14an, astelehenean, hasi eta urriaren 19ra, zapatuta, arte hainbat eta hainbat ekitaldi egingo dituzte. Urtero egiten duten moduan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Aste Kultural horren baitan.

Astean barrena Urribarriko erretiratuek eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai izango da egoitzan bertan; besteak beste, margolanak, ehoziri-lanak eta bordatuak izango dira ikusgai.

BERBALDI INTERESGARRIAK

Horrez gainera, astelehenean eta eguaztenean Urribarriko elkartearen berbaldiak izango dituzte, biak hala biak, 17:00etan. Astelehenean, Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioko (ICTE) tekniko batek *Osasuna irabazteko, paseatzea eta ariketa fisikoa egitea* berbaldia egingo du. Hizlariak

zahartzaroan ariketa fisikoa egiteak daukan garrantzia azalduko die erretiratuei, baita paseatzeak daukan onurak ere. Era berean, erretiratuek erraz egin ditzaizketen ariketa fisiko arinak ere azalduko dizkie.

Eguaztenean, bestalde, ikusmeneko arazoaren eta kataraten

gaineke berbaldia izango da. Berbaldi hori Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioko beste kide batek egingo du. Hizlariak ikusmena zergatik gal daitekeen azalduko du eta begiak ondo zaintzeko aholkuak emango ditu, eta kataraten gainean ere egingo du berba.

KARTA JOKO TXAPELKETAK

Asteburuan, Urribarriko Erretiratuen Elkarteak Aste Kulturalari jarraipena emateko, karta joko txapelketak egingo dituzte. Urriaren 18an (egubakoitza), 16:00etan eta urriaren 19an (zapatuta), 17:00etan, mus, tute eta briska txapelketa azkarrak jokatu dituzte. Interesatuak urriaren 15a (martitzena) baino lehenago eman beharko dute izena.

Eta urriaren 20an (domeka), txapelketak bukatu bezain laster, txapelketa bakoitzeko bikote irabazleei sari bana emango dizkiete elkartearen bertan. Eta, bukatzeko, esan beharra dago Urribarriko ikastaroetan erretiratuek egindako eskulanak erakusgai izango direla egoitzan bertan.

Emakumeak nagusi

Urribarriko Erretiratuen Elkarteak arduradunek kezka handia dute antolatzen dituzten ekitaldien parte hartzearekin. Izan ere, diotenez, emakume askok parte hartzen dute eta oso gizon gutxi.

Horrez gainera, gogoratu zuten karta joko txapelketan sari politak egongo direla, eta izena emateko gonbita egin zuten.

LABUR

Toki Argi elkarteko bikote bat, Gipuzkoako Erretiratuen Sukaldaritza Txapelketara

Urriaren 15ean (martitzenean), Arrasateko Toki Argi elkarteko bikote batek Gipuzkoako Erretiratuen Sukaldaritza Txapelketan parte hartuko du; Felix Zubiak eta Teodoro Garciak Debagoieneko erretiratuen elkarteak ordezkatzeko dituzte. 11:00etan hasiko da.

Izan ere, irailaren 26an, Debagoieneko Erretiratuen Okela Egoitza Txapelketa egin zuten Abaroan eta bikote hura nagusitu zen.

Toki Argi elkartekoak Iruñera joango dira eta Abaroakoak, berriz, Errioxa aldera

Urriaren 19an, Toki Argi elkarteak Iruñera joko dute. La Ciudadela ikusiko dute eta, horren ondoren, Escabarte erretegiaren bazkalduko dute eta dantzaldia eta opariak izango dituzte. Urriaren 14an eman beharko da izena, eta 20 euro ordaindu. Bestalde, urriaren 17an, Abaroakoak Logroñora, Najerara eta Harora txangoa egingo dute. Izenematea 20 euro izango da.

ZAHARRENAHOTIK

Felipe Larrasoaña

ERRETIRATUA

Felipe Larrasoañari batzuek 'katalana' deitzen diote. Izan ere, jaiotzez nafarra da, baina Bartzelonan pasatu zituen hainbat urte.

Zu jaiotzez nafarra zara, ezta?


Bai. 1916an jaio nintzen, Tafallan. Bost anai-arreba ginen, neu erdikoa, eta ortuan eta animaliekin lanean ibiltzen ginen: oiloak eta txerriak genituen, besteak beste. Horrez gain, Tafallako eskolan oinarriko ikasketak egin nituen. Hamahiru urterekin Igeltsero ikastun hasi nintzen, etxerako diru apur bat irabazteko.

Eta gerran, zer?

1936an, gerrara joan behar izan nuen eta fronte askotan izan nintzen, Arrasaten ere bai. Hiru bider zauritu ninduten eta beste baten hankak izoztu egin zitzaizkidan.

Gero, ordea, Katalunia aldera jo zenuen...

Bai, Bartzelonan arreba bat neukan, eta Tafallan lan gutxi zegoenez, 1944an hara jo nuen. 1956ra arte Bartzelonan izan nintzen, lehenengo igel-



tsero lanak egiten eta gero metalurgilari. Han nengoela, 1947an, gerra denboran ezagututako Teresa Garrorekin ezkondu nintzen eta 1956an, Arrasatera etorri ginen. Legarrren hartu genuen etxea, baina gero Juan Carlos Guerrara joan ginen.

Hortaz, Bartzelonatik etorri zinenetik Arrasaten bizi izan zara?

Bai, Union Cerrajeran lanean hasi nintzen eta erretiratu artean soldatzaile lana egiten ibili nintzen. Alaba bat eta biloba bat daukat. 1982an zabaldu zutenetik, eguerdiro Abaroara joaten naiz.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminiozko gurgil aulkiak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxoi bereziak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



ARRASATE
Javier Arregi
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, txiki! Etxekoak.



ARRASATE
Leire Rodríguez
Urriaren 1ean, urtebetete. Zorionak! Marijo, Maria Jesus, Maite, Izaskun eta ama.




ARRASATE
Ainhoa Balzategi
Urriaren 8an, 11 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Miguel Puente
Urriaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak; bereziki, Lur eta Lore.



ARRASATE
Ainara Bordes
Urriaren 3an, 14 urte. Zorionak! Lagunak.



ARRASATE
Alvaro Carmona
Urriaren 10ean, 14 urte. Zorionak! Gurasoak eta amama.



ARRASATE
Peru Arana
Urriaren 11n, 11 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jon Perea
Urriaren 10ean, 24 urte. Zorionak! T.M.T.



ARRASATE
Eneko Iturbe
Urriaren 10ean, 25 urte. Zorionak! T.M.T.



ARRASATE
Galder Axpe
Urriaren 7an, 25 urte. Zorionak! T.M.T.



ARRASATE
Lorena Bañuelos
Urriaren 4an, 11 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maria Azkarate
Urriaren 8an, 9 urte. Zorionak! Aitor, Josu eta okindegiko Pili eta Upe.



ARRASATE
Dennis Fuentes
Urriaren 14an, 2 urte. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Iker Uribesalgo
Urriaren 15ean, 3 urte. Zorionak! Jon, aita eta ama.




ARRASATE
Alex Aranburu
Urriaren 12an, 9 urte. Etxekoak eta koadrilakoak.



ARRASATE
Mariana Espinosa
Urriaren 10ean, 33 urte. Zorionak! Etxekoak.



ESKORRIATZA
Edorta Apraiz
Urriaren 2an, 24 urte. Zorionak! Atxabaltako koadrila eta bereziki, lehengusuak.



ARRASATE
Jesus Mari Zabarte
Urriaren 6an, 57 urte. Zorionak! Presoen lagunak.



ARRASATE
Asun Lezeta
Urriaren 9an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jesus Kortabarria
Urriaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Eugenio García
Urriaren 9an, 36 urte. Zorionak! Emaztea eta Joxe.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko urriaren 11 / 41. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Eskolako jangelan beharrean, frontoian izango da Erretiratuen Eguneko bazkaria

UBANE MADERA

Makina bat urtean lanean jardun eta gero, San Martin Sendi elkarteak kideek taldea desegitea erabaki dute. Arrazoi sinplea da: ez dute inor lortu taldearen jarraipenerako. Taldea desagertu denez, hemendik aurrera, Udalak antolatuko du Erretiratuen Eguna.

San Martin Sendi Elkarteko jarraipena lortzen ahalegindu dira, bai, taldekideak, baina ez dute inor lortu. Horren aurrean, taldea desegitea erabaki dute aurten. Edozela ere, aspalditik taldeak egin ohi duen ekitaldia, Erretiratuen Eguna, ez da desagertuko; Udala arduratuko da. Ana Martiarena-rekin jardun dugu taldearen gainean, azkeneko presidentearekin.

30 URTE BAINO GEHIAGO LANEAN

Berak kontatu digu zela 1965. urte inguruan eta herriko giroa apur bat mugitzeko helburuarekin talde bat sortu zen, eta Famili Buru Elkarte izena ipini zioten. Adibidez, gazteei Almenera joateko aukera emateko autobusa antolatu zuen elkarteak, Udalak ardura



Bazkaldu eta gero, dantza egiteko saioa izango dute erretiratuek.

SAN MARTIN SENDI ELKARTEA

hartu arte. Bestalde, garai hartako gazte batzuek Erretiratuen Eguna egin zuten behin, erretiratuak omentzeko. Eta, 1974an, Famili

Buru elkarteak hartu zuen hori antolatzeko ardura, gaur egunera arte. 1975. urtean, berriz, izena aldatu, eta oraingoa ipini zioten.

Herriko aurreneko gaztetxea ere sortu zuten talde horrek, orain liburategia dagoen tokian. Eta, zaharren egoitza dagoen lekuan,

Erretiratuek hiru euroko txartela erosi beharko dute Erretiratuen Eguneko bazkarirako

Casino elkarte gastronomikoa ere sortu zuten. Horiak izan dira, besteak beste, San Martin Elkartearen ekarpenak. Gero, urteekin, ekimenak eskuz aldatuz joan dira, eta San Martinen ardura Erretiratuen Eguna antolatzea izan da. Hori ere, orain arte.

BERRITASUNAK

Kontuak kontu, hilaren, 26an, Erretiratuen Eguna ospatuko dute Aramaion. Aurten, bi berritasun izango dituzte: eskolako jangelan beharrean, pilotalekuan izango da bazkaria. Izan ere, geroago eta erretiratu gehiago dira (aurten 287) eta jangela txiki geratu da. Eta, bazkalostean dantzaldia izango dute. Bestalde, bazkarirako hiru euroko txartela erosi beharko dute, Udalekoek zenbat doazen jakiteko.

HERRITARREN HITZA / Patxi Uribarren • Itzultzaile-idazlea

Hiztegiak zertarako

Ikasturteen hasieratan liburu eskaintzak jasotzen ditugu. Tartean hiztegienak. Era guztietakoak ditugu: handiak nahiz txikiak, hizkuntza bakarrekoak zein askotakoak, definiziozkoak, entziklopedikoak, orokorrak... Euskaraz ere bai. Aukeraketa ona egitea izaten da zailena!

Lehen eta behin, hiztegiak kontsulta liburuak direla hartu behar da gogoan. Eta kontsultak gure premien arabera egin behar izaten ditugula. Batez ere honako laguntza hauek eskaintzen dizkigute: hitzak zer esan nahi duten, nola idazten diren, nola erabili behar diren, horretarako adibideak eta eskainiz.

Dena den, hiztegiek, gizarte

bezala, berriztatze-bidean dihardute. Euskaraz gehiago, euskara batua egiten eta hizkuntza gizarte modernoko beharretara egokitzen dihardugulako. Orain hamar urtekoek ez dute balio zahartu egin direlako. Hiztegieta bilatu behar dugun beste gauza garrantzitsu bat, era

didaktikoan eginak izatea dugu. Horrelakoetan erraz egin ahal izaten ditugu kontsultak.

Euskarari dagokionean, bi talderen hiztegiak ditugu, batez



"Hiztegi on bat duena ez da itsumustuka ibiliko"

ere, merkatuan: Elhuyar taldeak eta Bostak bat lantaldeak Adorez sortan eskaintakoak. Biek aspaldian dihardute lanean eta lankidetzaz zabala bildu izan dute beren inguruan.

Elhuyarrenak: *Hiztegi Entziklopedikoa* (1993; 1766 or.); *Elhuyar hiztegia*: euskara-gaztelania/castellano vasco (2001; 1.223+20 orri); *Elhuyar hiztegi txikia* (2001; 866+34 or.); *Sinonimoen kutxa* (1999; 276 or.).

Bostak bat taldearenak:

Eskola hiztegia irudiduna (1992; 536 or.); *Sinonimoen hiztegia* (1999; 732 or.). *3000 Hiztegia eguneratua eta osotua*: euskara-gaztelania/gaztelania-euskara (2002; 1.530+100 or.); *3000 Eskola Hiztegia* (2001; 884+104 or.). Bi hauek, besteek ez bezala, euskal aditzaren joko osoa (normala eta hitanoa) ere badakarte. Txikienez beste euskarazko bi: *Eskoriatzako irakasle eskolako Lehener Hiztegia* (VOX-1998) eta *Harluxet fundazioak argitaratutako Nire Lehener Hiztegia* (1997).

Baduzu zer erosi euskarako zalantzak argitzeko. Hiztegi on bat duena ez da itsumustuka noraezean ibiliko. Lagun on bat izango du bidelagun.

LABUR

Erretiratuen bazkarirako txartelak salgai

Aurtengo Erretiratuen Eguneko ekitaldien barruan, bazkaria izango dute aukeratu herriko erretiratuek. Baina, bazkarira joateko, txartela erosi beharko dute aldeztu aurretik, batez ere Udalarri jakinarazteko zenbat joango diren bazkaltzera. Udalak jakinarazi digunez, Vital Kutxak eta Euskadiko Kutxak Aramaion dituen bulegoetan salgai ipini dituzte txartelak, hiru euroren truke. Horrez gain, auzo guztietako alkateek ere badituzte salgai.

Hilean behin kontzertuak izango dira Anboto tabernan

UBANE MADERA

Ibarrako Anboto tabernakoek ekimen berria ipini dute abian: kontzertuak tabernan. Helburua da herriko giroa berotu eta kulturari bultzada ematea. Denetarik izango da.

Zapatuetan izango dira Anboto kontzertuak. Izenburuan esan dugun moduan, hilean behin, eta, gaueko bederatzi eta erdietan; gauean zarata askorik ez ateratzeko. Urriari dagokion kontzertua, esate baterako, bizpahiru asteburu barru izango da.

Gorka Ariasek adierazi digunez, horrelako ekimen bat egiten den lehenengo aldia da. Helburua da Aramaio giroa indartzea eta kultura bultzatzea.



UBANE MADERA

Zapatuetan izango dira kontzertuak, 21:30ean.

DENETARIK

Horrela, mota guztietako taldeak eramateko asmoa dute, gustu guztiak asetzeko: zelta, reggaea, rock-and-rolla...

Horren adibide da lehenengo kontzertuko taldea: Rufián. Arrasatearrak, gasteizarrak, amu-

rriarrak eta kubatar bat dira talde horretako kideak. Gorka Ariasek esanetan, "denetarik apur bat jo zuten, jende dezente batuzen tabernan, denak gustura, eta azkenean festa antzekoa sortu

zitzaigun, goizeko ordu txikiak arte".

Horra, hortaz, aramaiarrendako proposamen berria. Inora joan barik, hilean behin, musika gozatu ahal izango dute.



Eguraldia lagun, giro ederra jaietan

Egitarau oparoa izan zuten untzillarrek asteburuan. Barikuan hasi eta domekara arte, nagusiek zein gazteek gozatu ahal izan zituzten auzoko jaiez: auzo afaria, bertso saioa, meza... eta, argazkian ikusten dugun moduan, gaztetxoak gustura asko izan ziren, adibidez, ipuin kontalariaren kontuak entzuten. Bestalde, Bolo Txapelketan Bizkaitik etorritako jokalariek ere izan ziren.

BOTEPRONTOAN/ Junkal Garai · San Martin Eskolako zuzendaria

“Udala konturatu behar da amore eman behar duela gauza batzuetan eta zerbitzua eskaini behar duela”

Arrasatearra da, baina bost urte daramatza Aramaio San Martin Eskolan lanean. Orain dela hiru urte zuzendari izendatu zuten. Junkalekin izan gara, eskolaren gainean berbetan. Junkal Garaik kontatu digun moduan, 110 ikasle eta 15 irakasle ditu gaur egun eskolak:


Zela daude banatuta ikasleak?

Bi urtetik seigarren mailara arteko ikasleak ditugu: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Eta 15 irakasle gara. Lehen, 12-13 ziren; orain, gauza zehatzetarako espezialistak daude: ingelesekoa, musikakoa...

Faltan igartzen duzue eskolan maila gehiago izatea?

Ideia da lehenbailehen 0-3 zikloa ipintzea. Herrian eskaera dagoelako eta beharra ere dagoelako. Aramaioko bikoteetan biek egiten dute lan, eta umea norbaitekin uzteko beharra dute; Arrasatera ez badute eramaten, hemen umezaina aurkitzea oso zaila da. Aurtun, bi urtekoen gelan siesta egitera geratzeko zerbitzuak nahiko eskaera izan du. Hortaz, beharra badagoela uste dut, eta herriak zerbitzu hori eskaini beharko luke.

Eta, ipiniko duzue?
Ez dago gure esku. Lehenengo,



“Aramaioko bikoteetan biek egiten dute lan eta umea norbaitekin uzteko beharra dute”

lege bat atera behar da, hori onartu egin behar dute hezkuntzako ordezkarietan, eta gero, hitzarmen batera iritsi Udala eta ordezkariak.

Zela ikusten duzu?

Gauza asko egon behar direla udalen esku. Hortaz, Udalar indar handia egin behar diogu eta konturatu behar da amore eman behar duela gauza batzuetan eta zerbitzua eskaini behar duela herriak beharra duelako.

Seigarren mailatik gorakoak...

Hasieran gogorra izan zen, eta jendeak ez zuen gura; oso gazte ikusten zituztelako Arrasatera joan behar ziren ikasleak. Baina nik uste dut gaur egun oso ondo moldatzen direla. Garraioa badute eta gehienak instituturara doaz zuzenean. Argi dago erosotasun aldetik Aramaion hobeto egongo zirela, baina nik uste dut oso ondo integratuta

daudela institutuan eta euren arteko harremanak oso onak direla, hortaz, ez dago arazorik.

Auzoetan bizi dira ume asko; zela konpondu duzue hori?

Garraioa dute ikasleek, doan, baina nahiko nahaspilatsua da, ibilbide desberdinak egin behar dituelako. Horrek esan gura du umeak goiz hasi behar direla mugitzen. Eta autobusak lauzpabost buelta egin behar izaten ditu.

Orain baduzue zerbait faltan?

Gehienbat, eskolaren mantentze lanekin lotuta. Berez, mantenua Udalaren esku dago, eta egunero borroka egin behar izaten dugu. Udalak esaten du ez daukala dirurik. Orokorrean, irakasleak eta klaustroa oso haserre daude eta sumatu dudana da Guraso Elkartekoak ere nahiko haserre daudela. Ikasturte hasieran batek baino gehiago esan du igartzen dela eskola barrua bertan behera utzita dagoela; eta ez dakit noraino konturatzen den Udala hemen 110 ume daudela eta sekulako zerbitzua ematen diola herriari. Jolastokiarekin ere arazoak ditugu; eskolako aterpea zikin-zikin dago, pintada, grafiti eta kartel politikoekin; teoriar, ezin da kartel politikorik egon eskolatan; eta hori Udalaren ardura da.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletekoa	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

DHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Aste honetako galdera: zein urtetan inauguratu zuten Arrasateko Uarkape pilotalekua?

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Urzante oliba-patsaren olio
litroko botila

1€ 166 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MERTXE SUDUPErendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mertxe!
Galderaren erantzun zuzena:
Andikano Jauregia Erdiko kalean.

ARRASATEKO HISTORIA

Pedro de Biteri Arana
mondragoetarra ezagutzen

JON ANDER RAMOS

Pedro Máximo de Biteri Arana 1833ko uztailaren 18an jaio zen, Iturriotz kaleko 28. zenbakian. Aita eta anaia hil zirenean, Pedro de Biterik sekulako dirutza jaso zuen, eta dirutza hori Arrasate-ri on egiten gastatu zuen. Pentsaera liberaleko gizona, argi zeukan herriak indarra hartzeko kultura izatea ezinbesteko baldintza zela, eta hori bultzatu guran hainbat eskola ireki zituen Gipuzkoan. Lehena Arrasaten egin zuen, eta 200.000 pezeta erabili zituen horretarako. Horrez gain, hiru irakasle kontratatu zituen, eta bakoitzari 2.000 pezeta ordaintzen zizkion urtero. Hiru irakasleetako bat Felix Arano izan zen, eta irakasle haren metodologia bereziak zalaparta handia sortu zuen herrian.

Hala ere, ez zen eskola hori izan Biteriren diru eta gogo onarekin egin zen eraikin bakarra: Azoka plaza eta Zaldibarko frontoia, adibidez, haren dirulaguntzei esker egin zituzten. Hori guztia gutxi zelakoan, haren herrikide Esteban de Garibai ere omendu

*“Zenbat eta diru
gehiago eman,
orduan eta
zoriontsuago izaten
zen Pedro de Biteri”*

gura izan zuen, eta haren etxea egon zen lekuan eraikin bat egin zuen, Garibairen etxearen antza zeukana.

Pedro de Biteri Mondragoek zeukan itxuragatik ere ardurtzen zen, eta herriko hainbat lorategi hark egin zituen. Filantropo ilustratu hura Biarritzen hil zen, 1908an, bere lehen fundazioa egin eta sei urtera.

Argi dago horrelako pertsonaia baten gainean lerro asko idatzi direla. Horrelako esakerak aurkitu ditugu: *Pedro de Biteri besteei laguntzen zen zoriontsu, zenbat eta diru gehiago eman, orduan eta zoriontsuago izaten zen. Edo: Gero eta diru gutxiago izan, pertsona moduan gero eta handiagoa zen Pedro de Biteri.*



Iturriotz kalean plaka bat dago Pedro de Biteri jaio zen etxean bertan.

ARRASATE PRESS

ERRETRATUZAHARRA

Emakumeak Eskolan sartu zirenekoa

Eskola Profesionala sortu zenean, 1943an, gizonezkoek bakarrik zuten han ikasteko aukera. Izan ere, garai haietan, salbuespenak salbuespen, emakumeak ogibidea etxearen barruan zuen, etxeoandre lanetan, eta ez besterik.

Baina On Jose Mari Arizmendiarrietak, Eskolaren sortzaileak, argi zuen emakumeek ere ikasteko eskubidea zutela. Horrela, 1951n, On Jose Mariak neskendako eskola egiteko ideia bota zuen; izena ere ipini zion: Lanbide Eskola Femeninoa izan zitekeen. Geroago, 1953-54 ikasturtean, Irakaskuntza Femeninoko ikastaroa antolatu zuen, eta 30 emakumek parte hartu zuten. Eta, azkenik, 1958. urtean, kaptazio-kanpaina egin eta gero, emakumeendako bakarrik izango zen Delineatzaile Industrialeko Lehen Ofizialtza ikastaroa antolatu zuen Eskolan.

Oraingo asteko argazki zaharra da horren irudi. Argazkiko neskek Delineatzaile Industrialeko ikasketak egin zituzten, aurreneko promoziokoak



dira. Goian, ezkerretik hasita: Arantxa Agirre, Mari Carmen Leibar, Gloria Uriarte, Ana Maria Amiano eta Arantxa Aiastui. Behean, ezkerretik esku-mara, honakoak daude: Mertxe Uriarte, Josefina Abarrategi, Maria Angeles Uribetxeberria, Pilar Uribetxeberria eta Lourdes Mayor. 1960-61 ikasturtean

egindako argazkia da.

Aurrerago ere bide beretik segitu zuen On Jose Mariak, berdintasunaren alde. Adibidez, emakumeendako Kimikako eta Elektronikako eskolak eskaini zituen Eskolak geroago; eta 1968an, Auzo Lagun sortu zuen. Lehenago, 1964ko apirilean, Arizmendiarrie-

tak manifestua plazaratu zuen; besteak beste, zera zioen: "Mezu hau Arrasateko EMAKUME guztiendako da: ez da inor kanpoan uzten..."

Argazkia eta informazioa: 'Eskola Politeknikoko Historia' liburua
Urtea: 1960-61 ikasturtea

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

Otalorako eta Uarkapeko etxeak

Arrasateko zona hori dezente aldatu da azken urteotan. Argazki askotan Arrasateko kaleak auto barik ikusi ditugu, eta zirkulazioaren gaineko hauskarketa ere egin izan dugu noiz edo noiz. Bi argazki hauetan, baina, auto asko azaltzen dira, eta autoak ere zenbat aldatu diren ikusteko balio digu. Mondragoetarrok dezente gastatzen dugu horretan ere.



≈ 1990 Otalora Lizentziaduneko San Frantzisko-ko biribilunea egin barik zegoen, eta Altamirako azken etxeak amaitzekotan zeuden.



2002 Gaur egun, Uarkapeko etxe berriek lehengo etxetoak ordezkatu dituzte, eta geroago eta semaforo gutxiago ikusten da herrian.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

gorka ileapaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78

GORKA
ileapaindegia

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A. ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1. ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kale, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5. ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kale 54, behe eskuma ☎ 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22